

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Nafarroako Gobernuak astelehenetik asteazkenetara aldatu ditu ohiko bilkurak

Helburua Administrazioaren funtzionamendua hobetzea eta izapideak arintzea da

Viernes, 19 de agosto de 2011

Nafarroako Gobernuak ohiko bilkurak asteazkenetan egitea erabaki du. Horrela, hurrengoa astelehenean, abuztuak 22, egin ordez, aurreikusita zegoen moduan, bilkura eta geroko prentsaurrekoa asteazkenean, abuztuak 24, egingo dira. Gobernuaren bilkura 9:00etan hasiko da, eta hartutako erabakien berri emateko prentsaurrekoa 11:00ean izango da.



Nafarroako Gobernuaren bilkura bilduta

Aldaketa horrekin, Foru Gobernuaren helburua Administrazioaren funtzionamendua hobetzea eta izapideak arintzea da, departamentuek beste bi egun izango dituztela Gobernu bilkuran onartutako gaiak barne hartzeko. Aurreko legealdian ostegunean ixten zen gai-zerrenda, bilkura egin baino lau egun lehenago. Kronograma berriarekin, gai-zerrenda astelehenetan itxiko da, Gobernuaren bilkura baino bi egun lehenago.